



16-19 urte bitarteko
ikasleentzako jarduerak



6. URRATSA: NEURRIAK HARTZEA / EKINTZAN SARTZEA



Co-funded by
the European Union





6. Urratsa: Neurriak hartzea / Ekintzan sartzea



Xedea

Pentsamolde irekia sortzeko eta aldaketa sustatzeko, beste batzuekin lankidetzan eritzea partekatutako ekintzen bidez.



Helburuak

Ikasleek beren ekintza-aukerak ezagutu ahal izango dituzte babes, migrazio, aniztasun eta arrazakeriaren aurkako gaietan. Ikasleak motibatuta eta ahaldunduta sentituko dira dituzten aukerak aprobetxatzeko.



Gako-hitzak eta edukia

Ekintza, lankidetzeta, elkarrekin, ezagupenak partekatzea, motibazioa

Metodologia eta Iraupena

Balio horietan oinarrituta jardutea eskatzen duten egoerak aztertzea, ikastaro honetan lortutako ezagutza eta esperientzia erabiliz.

Migratzaile/errefuxiatuen tokiko elkarteekin edo migratzaile/errefuxiatuen komunitate ordezkatzailleekin elkartzeko aukerak aztertzea, migrazioarekin, babeslekuarekin, aniztasunarekin eta arrazakeriaren aurkako ekimenekin lotutako proiektuetan lan eginez, elkarrekin aldaketa sortzeko. Aukeratutako ekintzaren arabera saio bat baino gehiago



Co-funded by
the European Union

76





6. Urratsa: Neurriak hartzea / Ekintzan sartzea




Erronka ekintza: Gozen aurrera!

Hezkuntzak benetan ikuspegia zabaldu eta aldaketa sustatzen du ekintzara daramanean. Hori errazteko, "erronka ekintza" bat proposatzen dugu, ikasgelan ikasitakoa gaingiditzen duena. Erronka horiek pentsatuta daude urratsetan aztertutako gaiak komunitate handiagora zabaltzeko. Denentzat izan daiteke onuragarria komunitate gisa gogoeta sustatzen duen ekintza.

Ikaskuntza esanguratsuagoa izango da:

- ikasleek beren ikaskuntzarekin zerikusia duen ekintza batean parte har badezakete.
- Migrazioarekin, babeslekuarekin, aniztasunarekin eta arrazakeriaren aurkako proiektuekin zerikusia duten elkarte edo lider batekin elkarlana ezartzen bada.
- Ekintza eskolan abian dagoen proiektu handiago batean integratu badaiteke.



Beherago, "ekintza-erronka" bat aurkituko duzu aurreko urrats bakoitzeko. Bat aukeratu dezakezu edo taldeka banatu, talde bakoitzak erabaki dezan zein erronkari ekin. Erronka gehienak sentsibilizazioa azpimarratzen dute, baina beste jarduera batzuk ere planteatu daitezke, adibidez diru bilketa, intzidentzia, bilerak eta elkartrukeak kasu. Iradokizunak baino ez dira; ikasleek Together for Change erakunde nazional laguntzailearekin eta/edo iheslari migratzaileekin horien artean aukera bat egin dezakete edo berriak proposatu.



Co-funded by
the European Union

77





6. Urratsa: Neurriak hartzea / Ekintzan sartzea



1.go etapa: Zer dira zure itxaropenak eta ametsak

Egin labor-metrai bat

Ikasleek gogoeta egin dute beren eta besteen itxaropenei eta ametsei buruz, ikaskideekin partekatu dituzte, eta iheslari gazteen beren itxaropenak eta ametsak azalduz bideoak ikusi dituzte. Topaketan zehar, gai honetaz ere hitz egin ahal izan dute.

Itxaropen eta amets horiek guztiak bildu eta bideo labor bat grabatzea proposatzen dugu. Gero bideo hori partekatu dezakete eskola komunitatearekin. Ikasleek sare sozial eta beste komunikabide batzuk erabil ditzakete bideoa garatu eta zabaltzeko, hala nola TikTok, Instagram, Youtube eta abar. Sormena da gakoa.



Esanguratsuagoa izan dadin, pentsatu bideoaren edukia eta zabaltzea Together for Change erakunde laguntzailearekin batera. Lagundu bideo hau aurkezteko modurik onena zehazten. Diskriminazioa eragin dezaketen estereotipoak eta aurreiritziak ez betikotzeko helburua dugu



Co-funded by
the European Union

78





6. Urratsa: Neurriak hartzea / Ekintzan sartzea



2. etapa: Zurrumurruak desegiten

Desafiatu zure eskola-komunitatea kahoot batekin!

Ikasleek informazio asko bildu dute 2. urratsetik aurrera. Hausnartu dezakete zer informazio partekatu nahi duten eta galdetegi bat sor dezakete Kahoot baten bidez.

Kahoota diseinatu ondoren, eskola komunitatearekin partekatu dezakete. Beste ikasgela batzuetan ere aurkezpenak antola ditzakete, lehiaketa bat sortu, edo Kahoota modu irekian argitaratu, beste batzuek parte hartu ahal izateko, haien familiak barne.



Zure Together for Change laguntzaile nazionalarekin galdera eta erantzun egokiagoak sor ditzakezu eta aurkezpena eta/edo hedapena elkarrekin batera planifikatu. Zure bikotekideak Kahootaren bidez partekatzeko interesgarria izan daitekeen beste informazio bat pentsa dezake.



Co-funded by
the European Union

79





6. Urratsa: Neurriak hartzea / Ekintzan sartzea



3. etapa: Itxaropen mezua helarazi

Espresio artistikoa

Ikasleek hainbat istorio entzun dituzte eta migrazioaren gaia ezagutu dute. Itxaropena funtsezkoa da injustizia bizi edo ikusi ondoren komunitatea sustatzeko. Ikasleek itxaropenaren irudikapen artistikoak sor ditzakete.

Edo arte diziplina bera aukera dezakezu ikasle guztientzat, edo eurena aukeratzen utzi (pintura, argazkilaritza, musika edo beste arte bisual batzuk). Ondoren, erakusketa bat antola dezakezue eskolan.



Kanpoko laguntzaile bat aurki dezakezu, zurekin batera lan egingo duena proiektu honetan eta sakontasuna emango diona. Laguntzaile hori artista bat izan daiteke, tailer bat ere gidatu dezakeena.



Co-funded by
the European Union

80





6. Urratsa: Neurriak hartzea / Ekintzan sartzea



4. etapa: Komunitate irekia

Talde, hiri, ideia abegikorrak

Ikasleek hausnartu dute jada zer behar den lan-talde, ekipo edo hiri batek denei ongietorria egiteko eta elkarrekin bizitzeko eta jolasteko. Jakinarazpen bat idatz dezakete denok elkarrekin zorientsu bizitzeko egin ditzakegun urratsak azalduz. Ondoren, pankarta bat sor dezakete adierazpen bakoitzeko. Pankarta horiek ikastetxean inprimatu eta zabaldu daitezke, eta Instagrameko post bat edo antzeko edukiren bat ere sor dezakete, ikastetxeko sare sozialetan partekatzeko.



Zure Togheter for Change erakunde nazional laguntzailearekin elkarlanean aritu zaitezke eta migratzaile/errefuxiatuen tokiko erakunde edo ordezkariekin, materialen sorkuntza eta zabalkundea elkarrekin antolatzeko. Elkarlan honek lagunduko dizu jende gehiagorengana iristen eta zure mezua indartzen, ahots ezberdinak gehituz. Ezin ditugu lan-taldeak, kirol taldeak edo hiriak integratzaileagoak eta abegikorragoak egin tartean dauden ahots guztiak entzuten ez baditugu.



Co-funded by
the European Union





6. Urratsa: Neurriak hartzea / Ekintzan sartzea



5. etapa: Ekintzaileak gara

Arrazakeriaren aurkako kanpaina

Ikasleek gogoeta egin dute estereotipoak diskriminazio bihurtzen direlaren inguruan. Migratzaera behartuta dauden pertsona gehienek beren harrera-herrialdeetan diskriminazioa bizi duten, askotan arrazakeriarekin lotuta.

Ikasleek liburuxka bat sor dezakete aurreiritziak diskriminazio bihur ez daitezzen. Liburuxka horiek fisikoki eta birtualki bana ditzakete



Zure Together for Change erakunde nazionala laguntzailearekin edo tokiko migratzaile/errefuxiatuen erakunde edo ordezkariarekin batera lan egiten baduzu, elkarrekin sor ditzakezun materialak zehatzagoak izango dira eta hedapenak eragin handiagoa izango du. Zure kideek jakingo dute asko diskriminazioaren aurkako borrokari buruz eta zein mezuk laguntzen diote jendeari ulertzen zer egin dezakegun elkar helburu hori lortzeko.



Co-funded by
the European Union





6. Urratsa: Neurriak hartzea / Ekintzan sartzea



Hauxek dira "Ekintza txiki" batzuk, gauzatu daitezkeenak denbora gutxi baduzu. Hala ere, zure klaseak motibazio handia badu, beste irakasle batzuk konprometitu ditzakezu edo ekintza horiek eskolan dauden ekitaldi edo kanpainetan integratu, batez ere gaiarekin lotutako sare bateko kide bazara. Hori horrela bada, hitz egin ezazu aldez aurretik eta inplikatu zure Together for Change erakunde nazional laguntzailearekin edo/eta tokiko migratzaile/errefuxiatu erakundearekin ordezkariekin. Zenbat eta kolaborazioa handiago izan, orduan eta eragin handiagoa izango dute zure ekintzek. Elkarrekin lan egin behar dugu elkarrekin bizi nahi badugu.



Co-funded by
the European Union

83

